

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Urtarrilak 22  
436. zenb.



DATORREN ASTEAN  
ZUEN ETXEETAN

## Ikasle etxebizitzetan

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: ALEXIS VALDES  
BESTEEK ESANA: ANTON OLARIAGA • KIROL ELKARRIZKETA: ARAITZ ETXABE

# HEZIBIDIEren

aldeko jokoa  
errenta segurua



**HEZIBIDE**  
HEZKUNTZA TALDEA

**BILERA INFORMATIBOAK:**

- **Haur Hezkuntza**  
(Lau ikastolentzako bilera bakarra):  
99-II-11, Monterronen
- **Lehen Hezkuntza (L.H.):**  
San Frantzisko Xabier: 99-I-28  
Almen: 99- II-2  
San Viator: 99-II-9
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**  
San Frantzisko Xabier: 99-II-3  
Almen: 99-II-4  
San Viator: 99-II-10

**ARRASATEKO BULEGOA:**

Biteri Etorbidea, 15 beheca  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE  
GIPUZKOA



**HEZIBIDE**  
HEZKUNTZA TALDEA

# Sei itsuak eta elefantea

ndiako ipuinen artean aurkitu dut hau. Sei jakintsu itsu eta elefante batez hitz egiten du. Sei jakintsuek ez zekiten zer zen elefantea eta hori jakin nahian zeuden elefantearen aurrean. Batek buztana ikutu zion eta zera esan zuen:

— Soka bat da.

Bigarrenak, elefantearen hanka bat laztandu eta bere iritzia eman zuen:

— Zutabe bat da.

Hirugarrenak eskua elefantearen gorputzean jarriz, zera uste izan zuen:

— Horma bat da.

Laugarrenak lantza bat irudikatu zuen hortzekin topo egitean; bosgarrenak sugea tronpa ikutzean; eta seigarrenak haizemaile bat belarrira iristean.

Seiek uste zuten arrazoia zutela, eta seiek zuten arrazoiaren zati bat: baina denak zeuden oker.

Gu ere horrelaxe



Karmele Perez

**“Herri aberatsek merkatua dute eta pobreak merkantzia dira”**

gaude, itsu munduaren aurrean. Txiki-txikitatik munduaren atalxoak identifikatzeko, errespetatzeko eta maitatzeko entrenatzen gaituzte. Mundu zatikatu baten berri eman digute. Kultura nagusi eta berezi baten barruan mundu homogeen eta besteekiko loturarik gabea eraiki nahian aritzen dira era guztietako

botereak. Horrela ditugu iparra eta hegoa, herri garatuak eta azpigaratuak, abertatsak eta pobreak, zuriak eta beltzak, zibilizatuak eta indigenak, hizkuntza maiorizatuak eta minorizatuak, estatuak eta nazioak...

Onartzen digute, bai, kultura, hizkuntza eta kolore aniztasuna aberastunaren seinale direla, herri eta izaki guztiek dituztela eskubide ukaezinak, merkatua libre delako guztiontzat... Baina kultura batzuek beste batzuk kolonizatzen dituzte;

2000. urterako ehundaka hizkuntza desagertuko dira; arrazakeria eta xenofobia gobernuak eta haien legeek bermatzen dituzte; askatasuna oso selektiboa da maila guztietan: batzuek badute eta beste batzuek ez; herri aberatsak eta garatuak merkatua dute eta pobreak, merkantzia dira.

Eta era guztietako aniztasun horiek baztertzeko eta desagertarazten doazen neurrian, botereduna are boteretsuagoa da, aberatsa are aberatsagoa, eta horien balio eta merituak dira guztion eredu. Aitzitik, pobrea gero eta pobregoa da, zapaldua gero eta zapalduago dago eta hauen balio eta merituak ahanzturan eta erdeinuan galtzen doaz.

Globalizazio eta mundializazioaren aroan gaude. Deskuidatuz gero, elefantea, hankarik, buztanik edo belarrik gabeko izaki bihurtuko zaigu, uniforme eta atalik gabea.

Baina munduaren puzzlea osatu ahal izateko atal guztiak dira ezinbestekoak. Neuk behintzat atal guztiak identifikatu, maitatu nahi ditut mundua bere osotasunean gozatu ahal izateko. ■

## B E S T E E K E S A N A

### Akabo Santamasetako kartelak

— Aurten utzi egin diozu Arrasateko santamasetako kartela egiteari. Zer dela eta?

— Hemezortzi bat urtez egin ditut kartelak. Lehenago santamasetako jaiak antolatzen zituen komisia desegin edo bertan behera gelditu da, eta batzorde hura zen, hain zuzen, niri hots egiten zidana. Niri inork ez dit ezer esan. Uste dut asmoa zela lehiaketa irekiren bat antolatzea kartela egiteko. Pena bat izan, lan hori oso gustura egiten bainuen.

— Oso iragarki landua izaten zen.

— Bai, eta bere eboluzioa izan zuen. Hala-kotean, pentsatu nuen txerria protagonista bihurtu eta antzezpapera eman, igoal urte horretako gertakizunen batekin lotuz... Hain-

bat txerri mozorrotu sortu nituen.

— Nonbaiten irakurri nuen behar bada Udalari ez zitziola gustatu zure karteletako esaldi bat.

— Komisia hark eskatuta, halako ‘Ez gaude denok’ esaldia agertzen zen beti karteletan. Osagarri finkoa zen, Udalaitz mendiaren irudia bezala, adibidez. Nik badaikit hori eztabaidatua izan dela. Niri ondo iruditzen zitzaidan halako oroimen bat Gabonetan edo festetan ez zeudenentzat, oso modu fin eta duinean egindako aipamena izanik, bestalde. Sinistu nahi dut aldaketaren arrazoia ez dela hori izan”.

**ANTTON OLARIAGA**  
DV, 99.1.16



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26)  
**Disenoiak:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriemak:** Gortzi Lande. **Behakadunak:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirretxe, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Unibarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larranaga, Matilde Sainz, Iker Barandaran, Xabier Lefona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozabela, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankeo kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop, E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ignacio Perez - Txos Azurmendi.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 22**  
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Larunbata, 23**  
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Igandea, 24**  
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala
- Astelehena, 25**  
• Gauez eta egunez: Morales, San Andres
- Asteartea, 26**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 27**  
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguualtorioa ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutzte Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 76 14 69  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ESKER ONAK

“**S**enideak”, euskal errepresaliatuen senitaritekoek, haien eskerrik beroenak agertu nahi dizkiegu Arrasateko dendari eta tabernariei Gabon hauetan jasotako laguntzatik.

Momentu honetan hain ezinbestekoa den laguntza hau laster ez dugula eskatu beharko itxaropenaz.

*Senideak*

## FUTBITOZALEON PARTETIK, ESKERRIK ASKO

**Z**aldibarko futbito txapelketaren jarraitzaile amorratua naizelako, eskerrak eman nahi nizkieke Arrasate Pressko langileei asteburuero horrenbeste jende erakartzen duen txapelketa honi beren orrietan egiten dioten jarraipenarengatik.

Asteburuero, hutsik egin gabe, aurreko asteburuko jardunaldien berri jakiteaz gain hurrengo partiden egutegia ere eskura jartzen diezue ni bezalako Zaldibarzale askori. Eta gauza handia da hori, partiden berri jakiteko kaleko tabernara jaisteko alferkeriaz zaudenean batez ere.

Eutsi bada, zuen lanari, eskerrak emanez futbitozaile guztiak idatziko ez badizuite ere, ziur bainaiz denok asko eskertzen dugula zuen lana.

*A.J*

## ARRASATEKO GAZTETXEAREKIN, ZER?

**E**rreak soinua ateratzen duenean ura daramalako dei da. Nik ere entzun dut kalean Arrasateko gaztetxearekin lotutako soinuren bat edo beste. Gazteen artean barra-barra dabilen gaia da, baina inor gutxik daki ezer garbirik. Zurrumurru guztien arabera, gaztetxea itxi edo lekuz aldatzeko asmoa omen dago.

Gaztetxearen inguruan gazte asko mugitzen da, batez ere asteburuetan. Hainbat kontzertu antolatzen dira, eta baita bestelako ekintzak ere. Esate baterako, Gabonetan azoka alternatiboa antolatu zen, honen bidez lortutako dirua herriko seme bati emateko, Jabilori hain zuzen ere. Eta oraingo honetan Jabilo izanda, baina hurrengo batean beste edonor izan daiteke.

Beraz, ez zait bidezkoa iruditzen horrenbeste jende mugitzen duen eta ekintza positibo bideratzen dituen gaztetxea besterik gabe ixtea, baldin eta asmoa hori baldin bada. Lekuz aldatzeko proiektua badago, gai honi buruz Arrasateko gazteria gehiago informatu beharra dagoela iruditzen zait.

*J.P*

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Baduzu sagardotegira joateko ohiturarik?

Joan den astean ireki zen sagardoaren sasoia



**Encarna Rodriguez**  
(30 urte)  
Langilea

Bai, ikaztegitara joaten naiz. Lagunak elkartzen gara, autobusa alokatu eta lasai joaten gara.



**Braulio Martin**  
(58 urte)  
Langabea

Inoiz ez naiz joan. Ez dut edaten eta ez dut zaletasun hori.



**Amaia Uriarte**  
(28 urte)  
Langabea

Urtean hiru bider joaten naiz. Lagunak elkartu, autobusa alokatu eta hainbat tokitara joaten gara: Usurbil...



**Miguel Angel Torres**  
(39 urte)  
Zerbitzaria

Ia urtero joaten gara, Usurbilera gehienetan. Jeneralean beribilean.



**Juan Jose Uribarren**  
(68 urte)  
Erretiratu

Lehen joaten ginen, Astigarragara edo Legorretara, baina orain ez.



**M<sup>o</sup> Asun Zubia**  
(32 urte)  
Langilea

Ez dut ohiturarik. Ez dut edaten eta naiz ez tabernetara ezta sagardotegietara ere joaten.



**Isabel Martin**  
(51 urte)  
Etxekoandrea

Gutxitan, baina bai. Hiruzpalau senar-emazte elkartu eta Donostia aldera joaten gara beribilez.



**Aner Arregi**  
(23 urte)  
Langilea

Ohiturarik ez, baina noiz behinka joaten naiz. Astigarraga eta Hernanira joaten gara, gehienetan antolatutako autobusetan.

## ORTO + LAGUN

ORTOPEDIA

Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko prest gaude

- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketarako plantilla bereziak.
- Lanerako eskalpoiak edo zuekoak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaidea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABAILETA

# Arrasate

## LANAK

### SANTA TERESAN

Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

### JOSE LUIS IÑARRAN

Jadanik amaitu dute oinezkoen pasabidea.

### OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

### KONTZEIÑON

Etxeak egiteko lanak.

### MAKATZENAN

Pilotalekuan saneamendu lanak.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 22**



**LARUNBATA 23**



**IGANDEA 24**

Tarteka lainoak izango ditugu zeruan eta goizaldera euri tantaren bat edo beste jauzi daiteke. Tenperatura ez da aldatuko.

Lainoak izango ditugu goi partean. Tenperaturari dagokionez, minimoa ez da aldatuko eta maximoa egin daiteke.

Tarteka lainoak agertuko dira eta haizeak hegoalde-tik joko du. Tenperatura, beraz, ez da aldatuko.

## Ilargia



**Ilgora**

Igandea, urtarrilak 24, ilgora izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

### Uribarri

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

## Urkuluko uraren maila

**%97,6**



## Distantziak

### Arrasate

121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris



# LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA



## Karibeko dantzak (saltsa, merengea, ...)

- Otsailetik aurrera larunbatetan, goiz eta arratsaldez
- Talde mugatuak

Eman izena lehenbailehen!

## Aerobic, yoga, power-dunbell, mantenimendu gimnasia...

## Gorputzerako tratamenduak (OSTAR)

- Erreafirmatu
- Moldekatu
- Bolumena gutxitu

**Saioa: 3.300 pta.**

10 saio eginez, hamaikagarrena doan!



## Zutikako eta etzandako SOLARIUMAK dutxarekin

**10 saio: 9.000 pta. (Hamaikagarrena doan!)**

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 52 17  
(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)

# 22

## ostirala

### ■ ZINEA

*Regreso al paraiso*, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.

### ■ MODA DESFILEA

Almen ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek Jabiloren aldeko moda desfilea antolatu dute. Desfilea arratsaldeko 19:00etan izango da, Amaia antzokian. Sarre-rak 250 eta 500 pta. kostako dira.

# 23

## larunbata

### ■ ZINEA

*Juegos salvajes*, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

### ■ ESKI IRTEERA

Tena bailarara eskiatzera joateko irteera antolatu du Besaidek. Autobusa goizeko 05:00etan aterako da, Garibai kaletik. Sallenten eskiatzeaz gain, nibologia ikastaroa eskainiko da.

### ■ JABILOREN ALDEKO KONTZERTUA

Jabiloren Lagunek eta Arrasate Musikal Eskolak, Jabiloren aldeko kontzertua antolatu dute Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Arrasate Musikaleko Tronboi eta Perkusio taldeak, Quinteto Oihuska Boskotea, Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeak eta Goikobalu abesbatza arituko dira Amaia antzokian arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Sarrera 800 pta kostako da.

# 24

## igandea

### ■ ZINEA

*Juegos salvajes*, Alai zinemán, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

### ■ CORAZON DE ENCINA BERGARAN

Arrasateko Extremeñoen Elkarteak, "Día de las Migas extremeñas" ospatuko du Bergaran. Goizeko 11:30etatik 12:00etara eta 13:30etatik 14:00etara, elkarteko Coros y Danzas taldea arituko da Bergarako plazan. Ondoren, Bergarako bandarekin batera, Extremadurako ereserkia joko dute pilotalekuan.

# 25

## astelehena

### ■ ZINEA

*Juegos salvajes*, Alai zinemán, 19:00etan eta 21:30etan.



## Kontzertua Gaztetxean

Berrizko Hyssopus eta Pasaiako Janko Barik nesken taldeak kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, gaueko 22:00etan.



# 26 asteartea

■ **ZINEA**

*Juegos salvajes*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ **MUS TXAPELKETA**  
Arrasateko Alkartetxe-  
ak X. Mus Txapelketa  
antolatu du. Urtarrilaren  
29an hasiko da, gaueko  
22:00etan. Parte hartu  
nahi duten bikoteek,  
Alkartetxean edo 943 79  
64 53 zenbakian eman  
dezakete izena, hilaren 26a  
baino lehen.

■ **IBAI-ARTEREN  
BATZAR OROKORRA**  
Arrasateko Erdialdeko  
Merkatari eta Zerbitzuen  
elkarteak, urteko batzar  
orokorra egingo du dato-  
rren ostegunean, urtarrilak  
28. Batzarra Txalaparta  
elkartean izango da,  
arratsaldeko 20:30etan.

■ **KOMIKI LEHIAKETA**  
Hies Ekimenak  
VIH/Sida edo sexu segurua  
izenburupean komiki lehia-  
keta antolatu du. 15-18  
urte bitartean eta 18tik  
gorakoen arteko bi maila  
egingo dira. Sariak 20.000  
eta 25.000 pta.koak  
izango dira, hurrenez  
hurren. Lanak aurkezteko  
epea martxoaren lehenean  
amaituko da. Arrasate  
pasealekuko 3. zenbakira  
eraman beharko dira.

■ **ITOIZ SALATZEKO**  
Itoizko Koordinakun-  
deak kale agerraldia eratu  
du urtarrilaren 30erako.  
Hori dela eta, autobusak  
aterako dira inguruko  
herrietatik. Arrasatek  
15:15etan aterako da.  
Izena emateko Irati taber-  
natik pasa zaitezke.  
Salneurria 1.000 pta.  
izango da.

■ **BILERA DEIA**  
San Frantzisko Xabier  
ikastolak Lehen Hezkuntza-  
ko bilera egingo du, aurten  
6 urte bete edo Lehen  
Hezkuntzako lehenengo  
kurtsoan matrikulatu behar  
duten umeen gurasoeekin.  
Bilera Gazteluondoko  
ikastolan egingo da.  
Euskarazko bilera arratsal-  
deko 17:45etan egingo da  
eta gaztelaniazkoa, berriz,  
19:00etan.


■ **DIPOSITIBA  
EMANALDIA**  
Besaideren Gazte  
Ekintza taldeak diapositiba  
emanaldia antolatu du  
urtarrilaren 30ean. Gaia,  
gazte ekintzen arteak  
izango da, Besaideren  
egoitzan.


■ **SAGARDOTEGIRA  
IRTEERA**  
Besaidek irteera pare-  
gabea antolatu du urtarrila-  
ren 31rako. Goizeko  
07:00etan atera eta Mada-  
rixa-Izarraitz-Zestoa ibil-  
bidea egin eta gero, sagar-  
dotegira joango dira. Izena  
emateko, Besaideren egoi-  
tzara jo beharko da urtarril-  
aren 26, 27 eta 28an,  
arratsaldeko 19:30etatik  
20:30ak bitartean.

■ **34-AN JAIOTAKOEI**  
1934an jaiotakoek kin-  
to eguna ospatuko dute  
otsailaren 6an. Eguerdiko  
13:00ean meza izango dute  
San Frantzisko elizan eta  
14:30etan Udalpen elkar-  
tean bazkalduko. Kinto  
guztiek Bengoa tabernan  
eman dezakete izena,  
otsailaren 3a baino lehen.  
Bazkaria 3.000 pta.  
kostako da.

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

**EKLIPSE**  
  
Arropak, tatuajeak,  
piercing-ak,..  
Biteri Etorbidea. 15  
Tel.: 943 77 02 69

  
**I. URTEURRENA**  
1998ko urtarrilaren 19an hil zen  
**Nuria Zabaleta Ojanguren**  
Urteurreneko meza San Isidro elizan izango da,  
igandean, hilak 24, goizeko 11:30etan.  
Joango zaretenoi, eskerrak aldeztu aurretik

  
**JADE**  
ILEAPAINDEGIA  
ORDUTEGIA  
Asteartetik ostiralera:  
9.30-19.30  
Larunbatetan:  
9.00-16.00  
Maalako Arrabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

USTEAK USTE

Hedabideen eragina

**B**ilboko kale agerraldi handiak bi errekor hautsi zituen, kazetari baten esanetan: Euskal Herrian inoiz egin den handiena izanik, komunikabideetan gutxien irau duena izan da.

Bilbokoa baino lau egun geroago Arrasateko kaleetara aterakin ginen su etenaz galdetzer eta harrituta geratu nintzen: jendea ia ez zen gogorutzen ETAK azken lau hilabeteotan ez duela inor hil edo bahitu, alderdi estraparlamentariorik handiena lanean ari dela Gasteizen eta bakea lortzeko aspaldi izan dugun aukerarik onena bizi dugula.

Jendea kokilduta zegoen Espainiako komunikabideetan agertzen ziren abixu apokaliptikoekin. Espainiarzale ez diren euskaldunen balorea inoiz ez da hain baxu egon Espainiako hedabideetan.

Lizarra sortu zenean, bereizkeria omen zen arazoa; Eusko Jaurlaritza osatu zenean, aniztasun falta eta kale agerraldia egin zenean, kale borroka. Beti zer bait.

Joxe Aranzabal

Eibar-Gasteiz autobidea

\* Aitor Iturriaga eta Amaia Balda

**M**altzaga-Urbina egitasmoa aztertzeko IGP-NIP taldeak osatu ziren 1994ko urtean.

Idatzi hau sinatzen dugunok izan ginen aukeratuak, taldeen irizpena Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru aldundien ordezkarien aurrean aurkeztuko.

Erakunde ofizialen ondorengo jokabidea NIPetako erabakien aurkakoa zenez, bide berriaren Trazatu Proiektuaren jendaurreko erakustaldia aprobetxatuz, eta IGP-NIPetako irizpenean oinarrituz, alegazio bat aurkeztu genuen Gipuzkoako Foru Aldundian 1997ko irailean, genuen ordezkariak erabiliz.

Alegazio hartan zera adierazten genuen:

- a) Foru Aldundiak bide zaharren konponketari eman beharko liokeela lehentasuna, bide berriaren proiektuaren onarpena atzeratuz.
- b) Gasteiz-Eibar autobidearen proiektua ez litzatekeela onartu behar, baldin eta bere finantziatorako bidesari berririk edo Bilbao-Behobia autobidearen bidesaria-

ren luzapena beharrezkoak balira.

Urtebete pasatu da gure alegazioa aurkeztu genuenetik eta ez dugu erantzunik jaso.

Bestalde, Trazatu Proiektua onartu zen, lurak desjabetzeko izapide ofizialak hasi dira, obraren lehen zatia iren hasiera 1999ko udaberriko iragarri da, eta Administrazioak dio bide berria peajeduna izango dela eta Bilbao-Behobia autobidearen bidesariak berrogei urteko luzapena izango duela.

Zuhurtasunez jokatu dugu orain arte, baina hau guztia ikusita, jendearen aurrean honako salaketa hau egitea erabaki dugu:

- a) IGP-NIP egitasmoa munduko gauzarik demokratiakoena balitz bezala aurkeztu zuten gure agintariek, talde haietako partaideak izendatuz herritarren

ren ordezkari zuzenak. Gure irizpena erabakigarria izango zela hitz eman ziguten.

Gerora guk erabakitakori ez diote jaramonik egin. Burla egin digute.

- b) Gure alegazioarekin gertatu den bezala, beste ehundaka alegaziok ez dute erantzunik jaso. Berriz ere agerian gelditu da gure politikoak eta erakunde ofizialak oso urrutituta daudela ordezkatzeko omen duten herritarrengandik. Herritarren partehartze zuzenaren alde hitz egiten dute eta gero ez dute errespetatzen.

Eta bukatzeko zera adierazi nahi dugu:

- 1. IGP-NIP taldeetan bide zaharren konponketaren alde jende gehiago zegoen beste bide berri bat egitearen alde baino.
- 2. Konponketaren lana egiteko "Gatzaga-Landa" taldeak aurkeztutako proiektua egokitzat jo zen.
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiak badu dagoeneko diru izendapen nahikorik obra hori egiteko. Kanpo finantziario berririk ez da beharrezkoa.
- 4. Deba bailarak badu esku-bidea peajerik gabeko bide duina izateko.
- 5. Bilbao-Behobia autobidea soberan ordainduta izango dute erabiltzaileek 2003. urtean. Politikari, agintari eta erakunde ofizialek bete ezazue herritarren erabakia behin betikoz!

\* NIPeko kideak

“ Deba Bailarak badu eskubidea peajerik gabeko bide duina izateko ”

astea bi hitzetan

■ **Etxeko obrak berehala**

Udaleko Gobernu Batzordeak astelehenean erabaki zuenez, etxeko obrak egiteko udal baimena berehala lortu ahal izango da, egin beharreko lanak milioi bat pezeta baino gutxiago kostatuz gero. Orain arte, berehalako baimen hori lortzeko lanen kostua, gehienez, 500.000 pezetakoa zen.

Diru baldintza honetaz gain, etxea konpontzeko, udalak ezarritako araudi bat ere jarraitu beharra dago.

■ **Sodadutzarako alegazioak**

Aurten, soldadutza ez egiteko alegazioen baremoa handitu egin du Defentsa Ministeritzak. Bi kasutan ezarriko dira baremo berriak. Gaixotasunen kasuetan, begi arazoak dituztenek, dioptria gutxiagorekin alegatu ahal izango dute armadara ez joa-

teko. Familiaren sostengurako kasuetan, berriz, orain arte, gutxieneko soldata baino gutxiago irabazten duenak soilik alega zezakeen arrazoi hau. Orain, aldiz, gehiago irabaziz gero ere posible da soldadutzatik libratzea.

■ **Emakumeak elektragintzan**

Astelehen honetan Lanbide Hastapeneko zentruan emakumeentzako elektrizitate ikastaroa hasi da. Otsailaren 10a arte, 15 bat emakume elektragintza ikasten arituko dira Luis Mari Leizeaga irakaslearekin.

AUKERA programaren barneko ekimen honek etxeko lanak eta ardurak emakumeen eta gizonezkoen artean banatzea du helburu.

Ikastaro honetaz gain, mekanika ikastaroa ere izango dute emakumeek. Gizo-

nezkoen kasuan, sukaldaritza, plantxa, jostea eta garbiketak egiten ikasiko dute urtarrilaren 26an hasiko diren ikastaroetan.

■ **Bake epailearen bila**

Arrasateko Udalak deialdi bat egin du bake epaile titularra eta ordezkoa hartzeko. Nahi duenak, udaletxera jo dezake izena ematera, hil honen 26a baino lehen. Ondoren, aukeratzeko orduan hainbat ezaugarri kontuan hartuko dira. Elkarrizketari 5 puntu emango zaizkio, titulazioari 3 eta langabezian dagoenari 2.

Ondoren, batzorde bat eratuko da udaletxean, pertsonal batzordeko kide batek, alkateak, euskara teknikariak eta sindikatuek osatua.

Bake epaile berria aukeratu bitartean, Oñatiko bake epailea ari da lan hori betetzen.



**XIII. GURUTZEA**

San Joan Bataiatzailearen parrokiako lanak bukatu dira. Ingurutik pasatu direnak konturatuko ziren lehen ez zegoen gurutze bat dagoela Kanpatorpe kantoira begira. 1929an eratu zen gurutzebidearen XIII. urratsa zen eta San Josepe eta Kontzeziño artean zegoen.

**OKELAK ETA ARRAINAK PARRILAN**

**UNZUETA**  
J A T E T X E A

- Ospakizunak
- Jaunartzeak eta bataioak

Zabola auzoa. ARAMAIO. Tel.: 945 44 50 95

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

# Udaletxean ez dago zerrendarik

Udaltzaingoak eta Hirigintza bulegoak jakinarazi digutenez, egunero-egunero joaten da norbait udaletxera Zerrajeran egiteko diren babes ofizialeko etxeak lortzeko izena non eman behar den galdetzera. Ez omen da oraingo kontua. Dirudienez, orain urtebete hasi zen jendea gai honi buruz galdezka.

Horietako batzuek diote kalean entzun dutela babes ofizialeko etxebizitzaren zerbait dagoela. Edo norbaitek esan diela lehenbailehen emateko izena, etxe gutxi daudelako.

Udaletxean, aldiz, argi utzi nahi dute horiek guztiak zurrumurruak besterik ez direla. Izan ere, udaletxean ez dago inolako zerrendarik. Are



Oraindik ez dago proiekturik.

gehiago, babes ofizialeko etxeak egiteko asmoa bada, baina oraindik ez dago proiekturik eta ezin dute ezer egin Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin arte.

## HIRU-LAU BAT HILABETE

Dena dela, Hirigintza batzordeko teknikaria den Juan Antonio Urdangarinek jakinarazi digunez, dagoeneko ari dira egitasmo hau bideratzen. Izan ere, hiruzpalau hilabete barru, Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten hasiko dira, hitzarmenaren bat lortzeko.

Zerrajeran, 280 etxe eraikiko dira. Horietatik 80 bat babes ofizialekoak izango dira. Honetaz gain, Legarren beste 80 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago.

## Edukiontzi berriak Deba Garaian

Deba Garaiko Mankomunitateak tetrabrik ontziak, plastikozkoak eta metalezkoak jasoko ditu birziklatzeko. Hori koloreko edukiontzi bakarrean batuko dira aipatutako hiru materialak. Martxotik aurrera ikusiko ditugu bailarako zortzi herrietan. Mondragoen, 46 edukiontzi jarriko dituzte, papearentzako edukiontzien ondoan.

Beraz, martxotik aurrera gure etxeko zabor poltsak txikiagoak izango dira eta orain arte papera, beira eta pilekin egiten genuen gauza bera egin beharko dugu arestian aipatutako hiru materialekin.



Paperezko edukiontzien ondoan ipiniko dituzte berriak.

Jasotakoa Legazpira eramango dute, Berzik biltegitara. Hantxe materialak sailkatu eta bakoitza leku bate-

ra bidaliko dute. Honela, bada, tetrabrik ontziak, Valentziako eraldatze enpresa batera bidaliko dira. Plas-

tikozko ontziak, Legazpiko Remaplast enpresak bihurtuko ditu berriz erabilgarri.

Metalezkoak, aldiz, hementxe salduko dira, berriz txatarra moduan erabil daitezten.

Hasieran, edukiontzi berri hauek Gipuzkoan zabalduko dira, baina gerora EAEko gainerako herrialdeetara hedatuko dira.

Europatik dator egitasmo hau, hango herrialde askotan aspaldi erabiltzen baita.

Era berean, jendeak gero eta gehiago erabiltzen ditu edukiontziak.

Beraz, birziklapenak gero eta arrakasta handiagoa duela esan liteke.

# Agortu egin dira Debagunereren egutegiak

Debagunereren egutegiak gero eta arrakasta handiagoa du. Aurten 4.200 ale atera ditu eta dagoeneko denak bukatu dira. Horietatik 1.700 Arrasaten zabaldu dira. 1.000 AEDk banatu ditu bere bazkideen artean. Gainerakoak 400 pta.tan saldu ditu.

Egutegi hauek Debagunek ateratzen ditu. Honek Deba Garaiko euskara elkar-teak biltzen ditu: AED Arrasaten, Jardun Bergaran, Laxan Oñatin, Loramendi Aretxabaletan, Idolaz Antzuolan, Pagedar Gatzagan eta Axtroki Eskoriatzan. 1993an sortu zen eta harrezkero ari da urtero-urtero egutegia ateratzen.

Irail aldean biltzen dira elkarteetako arduradunak eta egutegia zein gairen inguruan aterako duten erabakitzen dute. Hortik aurrera, bakoitzak bere herriari dagozkion argazkiak bilatzen ditu. Iaz bailarako trenaren historia erakutsi zuten



Egutegiko irudietako bat.

argazki bidez. Aurten, herrietako jaiak. Arrasateri dagozkionak Josemari Lasagabasterren artxibotik ateratakoak dira. Jendea agertzen hasi denetik, egutegiaren arrakas-

ta izugarri areagotu da.


Urteroko egutegiaz gain, Debagunek koordinatu egiten ditu bailarako euskara elkar-teak. Hauek hilean behin biltzen dira, elkarren berri ema-

teko. Sasoi batean "Kirola Euskaraz" kanpaina abiatu zuen. Baita bailarako jatetxe-en gida plazaratu ere. Euskal jaietara joateko autobusak ere Debagunek jartzen ditu.

## Udal garabia laster

Datorren astelehenero Gobernu Batzordeak udal garabi zerbitzua jarri edo ez aztertuko du. Badirudi onartu egingo duela. Izan ere, dagoeneko adjudikatu egin dituzte inguru hori

asfaltatzeko lanak. "Construcciones Arrasate" k egingo ditu, ia bost milioi pezetako aurrekontuarekin. Beraz, ezusterik egon ezean, laster garabia izango dugu.



## Berrikuntzak Uribarriko ibilgailuen esparruan

Arrasateko Udalak hobetu egingo ditu Uribarrin automobilak garbitzeko eta konpontzeko daukan esparruko zerbitzuak. Izan ere, 1994. urtean egin zenetik, jendeak asko erabiltzen du toki hau beribilak garbitu, olioia aldatu eta antzekoak egiteko.

1995a ezkerro, bi urtetik behin edo, eta batzuetan mai-zago, berrikuntzak egin izan ditu udalak. Orain 5.000 litro olio jasoko dituen ontzia jarriko du. Ur zikinak batzeko sistema berria ere izango du

udal esparru honek. Ur zikinak dauzkaten material solidoak eta hidrokarburoak banandu egingo ditu lur azpian kokatutako aparailu batek. Honela, urak kutsatu gabe isuriko dira Aramaio errekarara.

Hormirudi bat ere jarriko da, aparailuak modu egokian erabiltzeko zenbait argibide-rekin.

Lanak datozen hilabeteetan hasiko dira eta bi milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute.

## OÑATI

### 1 Diru banaketa

Saihesbideko lanetarako 60 milioi pezetako aurrekontua onartu du udalak. Kanposantuko zubiaren inguruan egingo dira lan hauek, baina zubiak ez du inolako kalterik jasoko.

Diru kontuekin segituz, 30 milioi pezeta emango ditu udalak Arrikruzteko kobazuloan egin beharreko lanentarako. Diru honekin, kobazulo inguruko lur sail bat erosi behar dute eta bestelako lanak egin. Gerora begira beste hainbat lan egingo dituzte, ingurune hau berreskuratzeko asmoz.

## ANTZUOLA


### 2 Epaiketaren zain

Karmen Irizar antzuolarra etxean da pasa den igandea ezker. Epaiketa eguna arte aske utzi dute, bi milioi pezetako diru ezarpena ordaindu ostean. Karmen Irizar joan den urteko martxoaren 19an atxilotu zuten Antzuolan, ETAko kide zelakoan. Etxeko garaian armak izatea ere leporatu diote. Igandean bertan ongietorria egin zioten herriarrek herriko plazan eta gaur afaria egingo da pilotalekuan, bere omenez.

## BERGARA

### 3 Uberako jaiak

Ubera azuoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan zehar, Pau-



lo Deunaren omenez. Ostira-lean auzokideek afaria izango dute, jaiei hasiera emateko. Hurrengo egunean, goizaldean, gaztetxoeren txanda izango da. Arratsalde partean, berriz, mus txapelketa azkarraregingo dute Jaolatzar elkartean. Bukatzeko, igande goiza mezarekin hasiko da eta ostean salda eta txorizoa banatuko dute bertaratutako artean. Hamarretakoa jan ondoren, berriz, Xamatx dantza taldea eta Moises Azpiazu taldearen txanda izango da. Paulo Deunaren egunean, berriz, astelehenean hain zuzen ere, meza

izango da. Ondo ibili!

Bestalde, aurren, Jardun Elkartek antolatutako amodizoko gutunen lehiaketan sekula baino gutun gehiago jaso dituzte.

Guztira, 209 gutun jaso dituzte. Orain arte, 150 inguru jaso ohi zituzten. Gainera, oraindik ba omen daude gehiago jasotzeko. Beraz, aipatutako zenbakia handitu egin daiteke. Gutun gehienak Gipuzkoatik datoz, baina Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldetik ere heltzen dira. 1995ean Maider Osa arrasatearrak irabazi zuen.

## ARETXABALETA

### 4 Badator telebista

Hiru urteko burutazioen ostean, badator Aretxabaleta herri telebista. Loramendi Euskara Elkarteak bultzatutako asmoa izanik, zortzi milioi pezetako inbertsioa jaso du dagoeneko ekimen honek. Oraingoan, plato bat eta editatzeko gela bat izango ditu eta bestela, *Aretxagazetarekin* sortua duten azpiegitura erabiliko dute.

Programazioa, berriz, astelehenean hasiko da albiste-giarekin arratsaldeko zortzietatik aurrera. Ondoren, gai orokor bat hartu eta berriker-tan jardungo dute. Bukatzeko, eguraldia. Ondorengo emisioa, asteazkenean izango da. Ordu berean eta egitura bertsuarekin. Astea ostira-lean bukatuko dute, ohiko albiste eta agendarekin.

## ELGETA

### 5 Anaidiaren batzarra

San Sebastianeko Noble-en Anaidiak bilera egin zuen asteazkenean, patroia-egunean, dirukontuen berri jakiteko eta santuaren jaia bazkari eder batekin ospatzeko. Anaidia 1482an sortu zen. Eguerdian mezatarra joan ziren eta ondoren Panaderokua tabernan bapoz bazkaldu.

Egun berean Udalaren Gazteria eta Kirol batzordeak bilera egin zuen Gazte Txartelaren erabilera arautzeko.

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



Gizarte etxeko taberna.

## Uribarriko gizarte etxearekin arazoak

Uribarri auzoko erretiratuak abenduaren lehenengo egunean sartu ziren Usaetxe plazan zabaldu berri duten egoitza berrian, baina dagoeneko eztabaidetan dabilta udalarekin. Zabaldu berri duten etxearen atal baten erabilera da ikamikaren arrazoi nagusia.

Jokin Iria, erretiratuen etxeko presidenteak kontatu digunez, erretiratuentzako etxe berria hitzartu zenean, Xabier Zubizarreta alkate zela, hain zuzen ere, erretiratuentzako etxea izan behar zen. Orain, aldiz, Jose Mari Loitiren alkate dela, izena aldatu, gizarte etxe izatera

pasatu eta horrelaxe zabaldu dute.

Hasieran izen aldaketa soilia zirudien arren, badirudi izena aldatzeak bestelako aldaketak ere badakartzala.

Jokinen esanetan, egoitza berri honek bi areto nagusi dauzka: bata tabernarekin batera dagoena, ohiko mahai eta aulkiekin. Besteak sukalde bat eta beste mahai eta aulki batzuk dauzka. Kontua da sukaldedun gela, "orotariko gela" izenekoa, bi gauzatarako erabili behar dela, auzoko kultura ekintzetarako alde batetik eta erretiratuen kultura ekintzak egiteko bestetik. Eta horrek arazoak sor-

tarazi ditu udalaren eta erretiratuen artean. Erretiratuen esanetan, auzoen erabilera dela eta, ez diete eurei bestelako erabilerarik ematen uzten.

### UDALAREN IKUSPUNTUA

Mondragoeko Udalak gai honi buruz duen ikuspuntua honakoa da: Blanca Roncal PSOeko zinegotzia denak eta gai honen inguruan lanean dabilenak kontatu digunez, 1994. urtean hasi ziren erretiratuen etxearen inguruko eztabaidak. Orduan, EBk erretiratuentzako etxe bat egitea proposatu omen zuen.

Osoko bilkurak, aldiz, gehiengoz atzera bota zuen proposamena, gizarte etxe bat egokiago izango zelakotan. Geroago, 1997. urtean, proiektua egin eta orduan berriz ere negoziaketetan aritu ziren Uribarriko erretiratuarekin. Blancaren hitzetan, azkenean gizarte etxe moduan irekitzea onartu zen osoko bilkuran, zati bat (%30) auzoko kultura ekitaldientzat erabiliz, eta beste bat (%70), erretiratuentzat. Hori, ordea, ez omen da betetzten. Blanca Roncalen esanetan, erretiratuak behar baino erabilera handiagoa ematen diote.



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

LOS VAQUEROS  
PRAKAK:

2 PEPE - 5.995 pta.  
PANAZKOAK - 2.995 pta.

Zerkaosteta, 5 •  
Tel.: 943 79 97 55

ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

BENGOA  
Lurrindegia • Bitxitegia  
Opariak

SALGAI

Zerkaosteta, 5  
Tel.: 943 79 28 85

## IZOZTUTA GERATU ZIREN

Eguberri inguruan, mondragoetar batek elurretako "panpin" bitxi hau aurkitu zuen mendian. Nork esan zuen hotzak hil egiten duela libidoa?



## GOGORRA EMAKUMEA!

Uribarriko Zaharren Etxeko Mari Carmen Lizarraldek lore sorta ederra jaso zuen hango erretiratuen partetik. Izan ere, 96 urterekin, emakumerik zaharrena da bera. Dena den, umorea ez zaio falta, 30 bat lagunen afaria berak prestatu baitzuen.

## INDARTSU DATOR GAZTERIA!

Egun pasa bizikletan irten eta bizikleta apurtu, hori da, hori, pedalei gogor ematea! Zorionak Aitor, zure lagunen partetik!







## TXOMIN LAXALT KAZETARIA

Joan den astean Txomin Laxalt Iparraldeko kazetaria izan genuen Arrasate Telebistan. Txominek Baionako *La Semaine du Pays Basque* eskualde astekarian idazten du. Oraingo honetan artikulu bat idatzi behar zuen Irungo Txingudi Telebistaz eta ATBri buruz. Harrituta joan zen gure telebistaz.

## ERROTIK APURTUTA

Joan den igandean horrela utzi zuen furgoneta batek Muxibar taberna ondoko seinalea, goizeko 05:00etan. Badakizue honelako seinale batek 50.000 pezeta inguru balio duela?



## IKASI ETA IKUSI

Arrasate-Aretxabaleta institutuko 2 HASOLEkoak Bartzelona aldean ibili ziren abendu erdialdean. Ikasketa bidaia zen, eta gauza interesgarriak ikasteaz gain, primeran pasatu omen zuten.

# Ikasleen etxebizitzak

# Bizitzen ikasten

Arroza eta pasta. Horixe da Zarugalde kaleko ikasle etxebizitza honetan jeneralean jaten duten menua. Jaki hauekin badirudi nahikoa dutela. Haragi xehea botaz gero, gainera, bigarren plateraren falta konponduta dago.

Erosketak egiteko 3.000 pezeta ipintzen du bakoitzak, eta horrekin aste osoa igarotzen dute. Hori bai, osteguna heltzean hozkailuak ezin itxura tristeagoa du.

Boskote gazte honen itxura ikusita, halabaina, argi dago ez daudela goseak. Aitzitik, itxura ezinhobea erakusten dute, alaia eta bizia.

**H**aritz, "Ipi", Xabi, Axi eta Eneko Mondragoen bizi dira elkarrekin. Eurekin, Martzel dago, beste ikasle etxebizitza batean bizi den laguna. Azpeitia, Lasarte eta Donostiakoak dira. Katu bat ere badaukate gonbidatu berezi gisa. Beltz-beltza da: Ikatz.

Eskola Politeknikoan ari dira ikasten eta hori dela eta bizi dira hemen. "Lehenengo urtean eskolako ikasle egoitzan bizi izan ginen. Lagunak egiteko ondo dago, baina ez gehiagorako. Hantxe elkar ezagutu eta etxebizitza bat osatzea erabaki genuen".

## ETXEBIZITZA BILA

"Guk ez genuen arazorik izan. Gutariko batek senideak dauzka Mondragoen eta haien bitar-



Hilean 80.000 pta. ordaintzen dute, hamabi hilabetez.

tez lortu genuen etxebizitza hau". Baina hau ez da ohikoa. Kontatu digutenez, euren ikaskideek nahikotxo lan izan zuten etxebizitza aurkitzeko. Irailean edo batzuetan lehenago hasten omen da jendea etxebizitza bila.

Izan ere, orain lau urte udalak 77 ikasle etxebizitza

zenbatu zituen Mondragoen. Ordutik hona, aldiz, nabarmen aldatu dira zenbakiak. Mondragon Unibertsitatea da egoera honen eragilerik zuzena. Izan ere, 1997an sortu zenetik, ikasle ugari etorri da kanpotik ikastera eta noski, hemen bizi beharra daukate aste barruan. Hori dela eta, gero

eta zailagoa da etxebizitzak lortzea. Gainera, ikasleek unibertsitatetik hurbil dauden etxebizitzak nahi izaten dituzte eta horrek zaildu egiten du guztia.

## ETXEBIZITZAK GARESTI

Gure lagunaren etxebizitza, egoera oso onean dago, bai-

na hau ere ez da ohikoa. Etxe asko eta asko zaharrak izaten dira eta ajatu samarrak. Gainera, oso garestiak dira etxebizitzak.

Gure lagunek, 80.000 pezeta ordaintzen dute hilero. Honetaz gain, urte osoa ordaindu behar izaten dute. Hone-taz gain, bestelako gastuei aurre egin behar dizkiete: zaborra, argia, ura eta gaine-

### ETXEKO LANEN BANAKETA

Talde bakoitzak bere siste-ma du. Zarugaldeko etxebi-zitza honetan, adibidez, batek egiten du bazkaria egunero eta beste bik, afaria. Harri-koa egitea sukaldean aritzen denari tokatzen zaio. Eros-ketak guztien artean egiten dituzte eta etxeko garbiketa, behar larria duenean. "Inori ez zaio komuna garbitzea

"Ez gara asko irteten kale-  
ra. Noizean behin, Gasteize-  
ra joaten gara. Baina hemen,  
Arrasaten, astebarruan behin-  
tzat ez dago bestelako gauza-  
rik".

Arrasatearrei dagokienez,  
hemengoak diren ikaskideak  
ezagutzen dituzte. Bestela, ez  
dute inor ezagutzen, bizimo-  
dua unibertsitatera eta haren  
girora moldatzen baitute. Mar-

asteburuero itzultzen dira  
etxera. Beraz, ez dute beta-  
rik etxea, herriko lagunak  
eta gurasoak faltan sentitze-  
ko.

"Etxebizitzan gainera,  
bakoitzak bere buruaren ardu-  
radun izaten ikasten du. Nor-  
bera da bere ekintzen erant-  
zule. Ondoan ez duzu lagun-  
duko dizun gurasorik".

Ikasketekin ere, nahiko



Inori ez zaio gustatzen komuna garbitzea, ezta katuaren kaka jasotzea ere.

rakoei. Azkenean oso garesti ateratzen da kanpoan ikastea. "Dirua etxean eskatu beharra dugu eta behin baino gehia-gotan kontzientzia arazoak izaten ditugu. Diru asko da.", esaten dute.

Hori bai, jeneralean harreman ona izaten dute jabearekin. Dirua banketxe bitartez ordaindu eta ez dute ikusi ere egiten.

gustatzen. Ezta katuaren kaka garbitzea ere. Honekin izaten ditugu eztabaidarik handienak. Bestela, ondo konpontzen gara".

Hori bai, ostiraletan motxila arropa zikinez beteta eramaten dute etxera. "Hasieran garbigailua jartzen genuen, baina lan larregi da".

tzelen kasua bestelakoa da. Goizetan Alecop-en egiten du lan eta, ondorioz, jende gehia-gu ezagutzen du.

### GUSTURA BIZI

Ondo bizi dira gure lagunak. Gustura daude elkarrekin. Eta gustura bizi dira etxetik kanpo. Elkarren artean ez dute inolako arazorik izan eta

ondo moldatzen dira.


Azterketa garaian ere etxebizitzan egoten dira eta ez dute ikasteko arazorik izaten. Hori bai, honelakoetan etxeko lanak apur bat alboratu egiten dira. Bestela, gutxien ikasi behar duenak hartzen ditu ardura horiek. ■

Ubane Madera

# Mikel Elorza aseguru etxea

Mikel Elorzak izen bereko aseguru etxea ireki zuen orain dela zazpi urte, 1992.ean, hain zuzen ere, Erdiko kaleko 4.ean. Lehenago, hala ere, bazuen bulego bat Zarugalden, eta "Catalana Occidente" konpainiarentzat lan egin zuen. Baina autonomo izan nahi zuen. Horregatik, aseguru artekaritzari buruzko ikastaro bat egin ondoren, Erdiko kaleko bulegoa zabaldu zuen. Bakarrik lan egiten du, baina noizean behin Donostiako Victor Manuel Esteban eta Jose Antonio Garciaekin batzen ditu indarrak. Lantaldea enpresen esparruan zentratu da batik bat. Mikel aseguruak saltzeaz arduratzen den bitartean, Donostiako bi abokatuek zuzenbidearekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituzte.

Mikelek berak artortu zigunez, nahiz eta Arrasate herri handia izan, aseguruak kontratatzeko ohitura duena, lehia izugarria da. Hor daude, besteak beste, Lagun Aro, Arrasaten bertan sortutakoa; Mikel Lasa negozio honetan urte asko daramatzana; eta, nola ez, kalitate ona eskaintzen duen Kutxa. Ezin ahaztu Mapfre konpainia ere. Mikel Elorza, partikularra izanik, ez da kexatzen bulegoan beti fraka bete lan delako.



Mikel Elorza da bulegoko langile bakarra.

## ESKAINITZA ZABALA

Aseguru kontuetan Mikel Elorzak eskaintza zabala eskaintzen du. Gizabanakok nahiz taldekakoak izan daitezke.

Aseguru bat saltzea ez omen da erraza, hasteko bezeroa eta honen familia ondo ezagutu behar delako. Beze-

roen ahalik eta xehetasun gehien izatea garrantzitsua da, batzuetan badiarelako iruzurren bat egiten saiatzen direnak.

Aseguru saltzaile lanaren beste zailtasun bat zera da: askotan gai gogorrei eta sentibere buruz hitz egin behar dela; ez da bat ere atsegina

istripu eta bestelako gertaera bortitzei buruz mintzatzea.

Orain arte gizonak izan dira aseguru etxetara gehien joan direnak, familia gehienetan aita delako lan egin eta dirua etxera eramateaz arduratzen dena. Emakumeak izaten dira, hala ere, azken erabakia hartzen dutenak.



**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**ARRASATE  
HOTELA**  
  
Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

# Arkok 11.600 Gida banatuko ditu datorren astean

Arrasate Komunikabideak elkarteak *Gida 99* banatuko du datorren astean. Gidak Leintz Bailarako merkataria guztien berri dakar. Aurten inprimatu diren 11.600 aleak Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan banatuko dira, dohainik beti bezala.

Aurtengo *Gida 99k* hiru berrikuntza nagusi dakartza. Garrantzitsuen iragarle guztien aurkibidea izango da: denak alfabetoaren arabera sailkatu dira, bilaketa errazagoa izan dadin. Hemendik aurrera, beraz, izen bat bilatzeko bide daude: aurkibidean edo sailka. Adibidez, Ugarran jatetxea bilatzeko, aurkibidean begira dezakegu, u letran. Bestela, jate-txe sailean bila dezakegu.

Bigarren berrikuntza teknikoa da. Zenbaki guztiak aurretik 943 dutela datoz.

Hirugarren aldaketa kondairena izan da. Herri bakoitzean aspaldiko ele-zahar bat kontatzen da. Honekin gida aberastu nahi izan da, zenbaitetan telefonoaren zain egin behar ditugun tarte horiek entretenigarriagoak izan daitezzen.

Arkoren Gida erabat praktikoa da, Leintz Bai-


larako merkataria guztien berri ematen baita, batzuetan telefonoa bakarrik emanez eta bestetan informazio gehiago, bakoitzak kontratatatu duen tartearen arabera. Horrez gain, larrialdietako telefonoak

ematen dira, osasun zerbitzuena, zerbitzu orokorrena eta erakundeena. Baita hiztegi bat eta agenda orri batzuk.

Arko 1994an argitaratu zuen lehen gida. Aurten goa seigarrena izango da.

## Gida 99: 11.600 ale

Arrasaten .....	8.400
Aretxabaletan .....	2.000
Eskoriatzan .....	1.000
Gatzagan .....	200



# Euroa

## Euroak prezioen igoera ekarriko du halaberharrez?

Ez, baina gauza bat hartu beharko dugu kontuan. Gaur egungo prezioak eurotan ipintzerakoan, hamartar asko dituzten zenbakiak aterako dira, lana zaildu besterik egingo ez dutenak. Kopuruak borobildu egingo dira, hortaz. Aditu zenbaitek aurreikusten duenez, honek prezioen %2,6ko igoera ekar lezake. Beste batzuk, aldiz, ez datoz bat ikuspegi horrekin.

Makina batean hartu nahi dugun freskagarri batek 150 pta balio badu, eurotan 0,19 izango da bere kostua. Borobiltzea dela eta, atera dakiguke gaurko prezioan baino %10 garestiago.

**Euro baten balioa**


# 166,3 pta



## ESKER ONAK ARRASATE PRESS-EN

HILDAKOEN BERRI EMATEKO EDO ESKER ONETARAKO  
ARRASATE PRESS DUZU TOKIRIK APROPOSENA ETA MERKEENA.

BERRI GEHIAGORAKO: TEL. 943 77 08 15



## Zer gertatu zen?

**P**otrosorri - At Celaya taldeen arteko norgehiagoka izan zen bertan behera gelditu zenetako bat. At Celayako atezainaren keinuak adierazten du taldekideek sentitu zuten ezintasuna. Iganden goizean jaiki, Zaldibarreraino joan eta partida ezin jokatu! Antolatzaileak ez ziren agertu eta hiru norgehiagoka bertan behera gelditu ziren.

## Laburrak

### ■ HIRU PARTIDA ATZERATUTA

Igande goizean jokatzekoak ziren lau neurketatik hiru bertan behera gelditu ziren. Antolatzaileak ezin izan ziren agertu gripeak ez baitu salbuespenik egiten. Gauzak horrela, Leya-Aldibi, Potrosorri-At Celaya eta Sokoakoak-Bar Nuevo taldeen arteko neurketak ez ziren jokatu. Txapelke-

tako antolatzaileek adierazi digutenez, talde horiekin egotekotan dira noiz jokatuko duten zehazteko. Laugarren neurketa, Rotor de Bolbogrado-Pepelus, binako berdinketarekin amaitu zen.

### ■ PUNTU GUTXIAGO

Antolatzaileek zigortu egin dute Construcciones Luso taldea. Talde honek Orlando Pira-

tas-Serengeti HC partida epaitu behar zuen, baina ez ziren agertu. Hori dela eta, bi puntu gutxiago izango du taldeak. Horrez gain, txapelketa hasieran fidantza bezala jarritako 8.000 pta.k ere galdu dituzte.

### ■ KONTUAN HARTZEKOAK

Txantxiku Kirolak eta Orlando Piratas taldeak dira une

honetan faborito nagusiak. Izan ere, orain arte partida guxien galdu duten bi taldeak dira. Adibide bat jartzeagatik, Txantxiku Kirolak Naranja Mecanicari sekulako jipoia eman zion asteburuan. Naranja hirugarren amaitu zuen joan den urtean. Beraz, ez da txantxetarako txantxikuarrena! Txapela Arrasatetik kanpo joango ote da aurten ere?



**Ikas ezazu dantza egiten Nayrelisekin**

# ATERPEN

## Dantza afroamerikarrak

**Son** - Salsa - Cha,cha,cha - Kubako erritmoa -  
- Runba - Rueda kasino-Koreografiak -  
- Kabaret teknikak -

**Ikastaro hasiera:**

Astelehena 25 eta larunbata 29

**Matrikula epea zabalik daukazu!**

**Astelehenetan:**

22:30etatik 00:30 etara

**Larunbatetan:**

11:30etatik 13:30 etara

Eman ezazu ikastarorako izena Aterpe Kafetegian  
(Amaia antzokiaren ondoan)  
Tel.: 943 77 03 87

# Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	10	10	0	0	66	24	<b>20</b>
LONTXO TABERNA	10	8	2	0	61	20	<b>18</b>
PEPELUS	10	7	3	0	38	23	<b>17</b>
AC SURKOS	10	7	2	1	58	35	<b>16</b>
XHASSS UGARTE	10	7	1	2	63	36	<b>15</b>
INSERT COIN	10	7	1	2	39	31	<b>15</b>
KOM. ALPARGAT	10	5	1	4	58	29	<b>11</b>
ALDIBI	9	5	0	4	52	25	<b>10</b>
LEYA	9	5	0	4	31	25	<b>10</b>
KE OXTIAS	10	5	0	5	42	31	<b>10</b>
SAUKELU SCRE.	10	3	1	6	23	31	<b>7</b>
SERENGETI HC	10	3	0	7	30	47	<b>6</b>
BUKANAK	10	3	0	7	33	55	<b>6</b>
BALON ROJO	10	2	2	6	25	59	<b>6</b>
REX 23	10	2	0	8	26	58	<b>4</b>
ALAI GOZOKIAK	10	1	1	8	26	56	<b>3</b>
MAKAI	10	1	0	9	23	59	<b>2</b>
ROTOR BOLBOGR.	10	0	2	8	18	68	<b>2</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	10	9	0	1	79	18	<b>18</b>
IRATI STS	10	8	1	1	61	24	<b>17</b>
KKJAURI	10	7	2	1	47	27	<b>16</b>
GARAJE OSKAR	10	7	1	2	48	25	<b>15</b>
NARANJA MEC.	10	6	2	2	75	41	<b>14</b>
AURRERA BOLIE	10	7	0	3	41	25	<b>14</b>
LOS HEREDIA	10	6	1	3	23	31	<b>13</b>
KOKA JUNIORS	10	5	2	3	29	29	<b>12</b>
DKB	10	5	1	4	36	29	<b>11</b>
ZOTZ	10	3	2	5	38	38	<b>10</b>
DIEGO ANTONIO	10	3	3	4	32	45	<b>9</b>
AT CELAYA	9	3	1	5	26	38	<b>7</b>
POTROSORRI	9	3	0	6	26	65	<b>6</b>
LAUTERBRUNENN	10	1	4	5	22	39	<b>5</b>
BORROCK & ROLL	10	2	2	6	20	28	<b>5</b>
ATERPE KAFETE.	10	1	1	8	20	52	<b>3</b>
PUB ARROGOI	10	1	0	9	7	29	<b>2</b>
ETXE MOBEL	10	0	1	9	20	67	<b>1</b>



## Hurrengo partidak

### Urtarrilak 23, larunbata Zaldibar

- 09:50 Rex - Aldibi
- 11:00 Los Heredia - Irati STS
- 12:00 Totem - EPEH
- 13:00 Xhasss - Ke Oxtias!
- 14:00 Makai - Rotor Bolbo.
- 15:00 Eusko Label - Kamasu.
- 16:00 DKB - Txantxiku Kirolak
- 17:00 Fraguel Gol - Jotakabau
- 18:00 Lontxo Tab. - Alai Gozo.
- 19:00 Potroak - Branka Tab.

### Iturripe A

- 13:00 Bukanak - Leya
- 14:00 Etxe Mobil - AT Celaya
- 15:00 Saukelu - Kom.Alpargat
- 16:00 Cons. Luso - Jako al Rey

### Iturripe B

- 13:00 Zotz - Koka Junios
- 14:00 Orlando Pir. - Balon Rojo
- 15:00 Sokoakoak - Betrayer
- 16:00 Serengeti - AC Surkos

### Urtarrilak 24, igandea

- 09:50 Aurrera Bol. - Diego Ant.
- 11:00 Insert Coin - Pepelus
- 12:00 Dribling - Aita Menni
- 13:00 Bar Nuevo - You Know

### Atsedena:

- B taldea:** Potrosorri, Naranja Mec., Garaje Oscar, KKJauri
- D taldea:** Decadencia

# Emaitzak

## A TALDEA

- Bukanak 3 - Xhass Ugarte 5
- Lontxo Taberna 6 - Balon Rojo 4
- Insert Coin 8 - Makai 3
- Saukelu Scream 0 - Ac surkos 4
- Rex 23 2 - Komando Alpargat 8
- Orlando Pirat. 6 - Serengeti HC 1
- Ke Oxtias 7 - Alai Gozokiak 3
- Leya - Aldibi
- Rotor de Bolbo. 2 - Pepelus 2

## B TALDEA

- DKB 1 - Aterpe Kafetegia 0
- Los Heredia 1 - Pub Arrogoi 0
- Aurrera Bolie 1 - Koka Juniors 2
- Etxe Mobil 3 - Diego Antonio 4
- Garaje Oscar 3 - Zotz 1
- Naranja Mec. 2 - Txantxiku Kir. 9
- KKJauri 3 - Irati STS 6
- Potrosorri - At Celaya

## D TALDEA

- Construcciones Luso 2 - Totem 6
- Potroak 5 - Betrayer 2
- Dribling 9 - Eusko Label 2
- Decadencia 1 - You Know 3
- Sokoakoak - Bar Nuevo
- EPEH 4 - Branka Taberna 3
- Jako al Rey 1 - Jotakabau 6
- Kamasutra 4 - Aita Menni 1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	9	9	0	0	51	16	<b>18</b>
JOTAKABAU	10	7	1	2	26	19	<b>15</b>
DRIBLING	9	6	2	1	45	31	<b>14</b>
EPEH	9	5	3	1	38	30	<b>13</b>
POTROAK	9	6	1	2	43	25	<b>13</b>
AITA MENNI 2010	9	6	1	2	35	25	<b>13</b>
TOTEM	10	5	1	4	36	24	<b>11</b>
SOKOAKOAK	9	5	0	4	31	30	<b>10</b>
BRANKA TABERNA	9	3	3	3	38	32	<b>9</b>
FRAGEL GOL	9	3	3	3	28	28	<b>9</b>
BAR NUEVO	8	3	2	3	28	27	<b>8</b>
KAMASUTRA	9	3	2	4	35	29	<b>8</b>
DECADENCIA	10	2	3	5	21	21	<b>7</b>
JAKO AL REY	10	1	3	6	28	40	<b>5</b>
BETRAYER	9	2	1	6	27	38	<b>5</b>
EUSKO LABEL	10	0	0	10	22	70	<b>0</b>
CONSTRUC. LUSO	10	0	0	10	14	61	<b>0</b>

## ARRASATE KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## JUBAR

ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

## URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

## JUAN RAMON ARANDO AZPIRI

TRATAMENDUAK:

- Minak
- Giharrak
- Zainak
- Hezurak

Olarte, 43 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 01

Nesken futbol taldeko aurrelaria

## ARAITZ ETXABE

*“Gogorra da futbolean aritzea”*

**– Nesken nazional mailako jokalaririk gazteena zu zara, horrek badu eraginik?**

– Bai. Bai fisikoki eta baita teknikari dagokionez ere. Baina poliki-poliki ikasten nabil.

**– Nola hasi zinen futbolean?**

– Ikastolan, multikirolean. Hango entrenatzaile den Mikel del Riok esan zidan gero Mondra taldera sartzeko. Entrenatzen hasi nintzen eta beheko taldean urtebete pasatu ostean, gora igo ninduten. Bi urte daramatzat Mondran.

**– Nola doakizue denboraldia?**

– Gaizki. Partida guztiak galdu ditugu, bat edo bi izan ezik. Talde guztiak antzeko maila daukagu. Ez dakit zer pasatzen den, zorte txarra agian...

**– Gustura ibili arren, gogorra da futbolean aritzea?**

– Niretzat bai. Asteartean entrenamendu fisikoa daukat. Ostegunean abdominalak eta ostiralean baloia erabiltzen ikasten dugu. Honetaz gain, eskolako gimnasia orduak ere badauzkat. Lo gutxi egiten dut, ez dut asti gehiegirik eta azterketetan, entrenamenduetatik itzultzean hasi behar dut ikasten. Eta hori gogorra da. Hala eta guztiz ere, gustura nabil.

**– Baduzu segitzeko asmorik?**

– Urte batzuetan jarraitzeko asmoa dut. Baina gero zer egingo dudan, beste gauza bat da.

**– Nesken futbola profesionalizatuz gero...**

– Lehendabizi karrera egitea gustatuko litzaidake, gero futbolean arituko nintzateke, baina zaletasun moduan.




## FUTBOLA Garaipena hasteko



Bigarren itzulia hasi zuten preferente mailako Mondra taldekoek joan den asteburuan eta ez zuten batere gaizki egin. Jabier Letonaren lehen partida izateaz gain, hiru puntuak ekarri zituzten mondragoetarrek Martutenetik. 0 eta 1 gailendu zituzten Baskonia taldekoak. Asteburu honetan, ordea, etxean aritzea tokatzen zaie Mondrakoei eta hortxe ikusi behariko dugu zuzendaritzak hartu zuen erabakiak ondorio zuzenak dituen. Garaipena lortuz gero, etxean irabaziko luketen lehenengo norgehiagoka litzateke preferentekoentzat. Aurrez aurre sailkapeneko 11. tokian dagoen Mutriku taldea izango dute. Norgehiagoka larunbatean izango da, arratsaldeko 16:00etan.

Emakumeen taldeak bestalde, Bizkerren aurka jokatu zuen igandean. Neska futbolariak ez daudela sasoirik onenean eta, igandean ere galdu egin zuten. Esti Loiti entrenatzailearen hitzetan, denboraldiko partidarik txarrena jokatu zuten. Gainera, gripea zela eta, justuan 13 lagun bildu zituen Tituk. Azkenean, Bizkerre 4, Arrasate 0 amaitu zen norgehiagoka. Igandean, etxean arituko dira, arratsaldeko 16:00etan, Añorgaren aurka.

## SASKIBALOA Galdu, liderren aurka



Arrasate Saskibaloitaldeak galdu egin zuen joan den larunbatean, Azpeitian. Liderraren aurka jokatu zuten mondragoetarrek eta eurak izan ziren

arren saskiratzen lehenak, bost minutura Jostaldikoez hartu zuten norgehiagokaren gidaritza. Errasti eta Alvarez pibotak falta ziren eta Basurkok eta Gorostidik jokalekua utzi behar izan zuten, Mallabiarrena bakarrik geldituz. Norgehiagoka 77 eta 67 amaitu zen. Asteburu honetan Iturripen jokatu dute Larraona iruñearraen aurka, arratsaldeko 19:15etan.

## ESKUBALOA Berriz ere ezin



Senior mailako taldeak berriz ere galdu zuen joan den asteburuan. Barakaldoren aurka aritu ziren Bernardo Balerdiren mutilak eta nahiz eta lehen zatian irabazten joan ziren, azkenean, amore eman behar izan zuten jende faltan zeudela eta.

Bederatzi lagun bakarrik bildu ziren partidarako eta lehen zatian 10. minutuan gainera, Mikel Loiti kanporatu zuen epaileak. Gauzak honela, aldaketak egiteko ere larri ibili ziren mondragoetarrek. Azken emaitza 27 eta 18 izan zen. Ez zen partida ona izan larunbatekoa. Beste aste bat egin dute eskubaloitalde nagusikoek punturik irabazi gabe.

Larunbatean Oretetako Ereintzaren aurka arituko dira, 17:00etan.

Haur mailako taldeak etxean jokatu zuen asteburuan. Partida polita izan zen, derbia jokatu zen eta. Aurrez aurre, Arrasate eta Bergara aritu ziren. Jesus Mari Herreroren taldeak ondo jokatu zuen eta derbia irabaztea lortu zuten. 19 eta 18 garaitu zituzten bergararrak.

Aste honetan Urrietaren aurka jokatu dute, berriz ere Iturripen.



# Euskal Herriko atletismo txapelketak


Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko bi kirolari izango dira larunbatean Anoetan. Hantxe Euskal Herriko pista estaliko txapelketako finalak jokatuko dira. Arrasatetik Jonatan Perez eta Oñatitik Felix Sanchezek hartuko dute parte. Bi kirolariek urrea eta brontzea lortu zituzten orain dela bi aste Anoetako pistetan. Larunbatean txapela lortzen saiatuko dira.

Jonathan Perez pertika jauzian arituko da. Aurrekoan 4 metro eta 10 cm.ko jauzia egin zuen.

Felix Sanchezek ordea, 800 m.ko lasterketan hartuko du parte. Brontzea 2 minutu eta segundu bateko denborarekin lortu zuen. Asteburu honetan gogorrago saiatu beharko da, podiumera igo nahi baldin badu.

## BETERANOAK SASOIAN

49. Bolumburu memoriale jokatuko zen igandean Eibarren. Gipuzkoako kros txapelketa hau Eibar eta Arrate artean jokatuko zen eta beteranoen



Jonathan Perezek 17 urte ditu.

artean, izan zen mondragoe-tarrarik ere. 5.200 m.ko ibilbidean nagusia Serafin Garcia izan zen. Atletico de San Sebastian taldekoa. Jabier Mentxaka mondragoetarra 4. izan zen, 4 segundura. Seigarren tokian iritsi zen Alfonso Luemo 54<sup>ra</sup>. Zesar Diezek, berriz, irabazleagandik 2'24<sup>ra</sup> amaitu zuen.

Emakumeen artean, garaipena Bidasoa taldeko Kontxi Uriok eskuratu zuen. Mari Jose Gil laugarren izan zen 26 segundura.

Aste honetan Elgoibarren jokatuko den Juan Mugerza memorialean arituko dira Jabier Mentxaka, alfonso Luemo eta Zesar Diez. Probaigandean izango da.

## Born-Jay abian

Arrasate Txinrrindulari Elkarteak, Born eta Jay etxeekin jarraituko du aurtengo denboraldian ere. Oraindik ez dute aurkezpen ofizialik egin, baina dagoeneko erabaki dute Jose Estez, Eneko Garai eta Imanol Etxeberria zuzendariek, 99-00 denboraldian taldea osatuko duten txinrrindulariak nortzuk izango diren. Iazko zortzi txinrrindulariz gain (Jabier Migel Benedit, Antonio Urmeneta, Oskar Askasibar, Jokin Lizeaga, Ramon Jabier, Jon del Rio, Ruben Gonzalez eta Davik Sojo) beste zortzi lagun fitxatu dituzte. Iñaki Llodio eta Xabier Beitia, Fagor taldetik; Josu Mendizabal, Tradipatik; Jordi Valbuena Seguros Areso taldetik; Angel Vazquez eta Arkaitz Martinez M. Ordiziatik; Jose Blaquez, P. Bidart taldetik eta Jon Garraus, Iberdrola taldetik.

Abenduan Nafarroan egin zuten lehenengo kontzentrazioa, taldekideek elkar eza gutu ahal izateko. Orduan Iñaki Arratibelen laguntza izan zuten Born Jaykoek. Aurkezpen ofiziala otsailaren hasiera aldera izatea espero dute taldearen arduradunek.

## Errugbi Taldea bigarren

Senior mailako Arrasateko Errugbi Taldeak beste garai-pen bat lortu zuen joan den asteburuan. Bilbon aritu ziren Universidad 15 taldearen aurka. Patxi Gorosabalen mutilak 3 eta 8 galtzen joan eta gero, partidari buelta ematea lortu zuten. Azkenean 8 eta 10 amaitu zen neurketa eta sailkape-neko bigarren tokian segitzen dute. Aste honetan Garagartzako errugbi zelaiaren arituko dira. Lokatzetan Getxoko taldearen aurka

neurtu beharko dira.

### GAZTEAK GALDU

Etxean jokatuko zuten gazte mailakoek joan den asteburuan. Aurrez aurre Durangoko taldea izan zuten eta azken minutua arte eutsi zioten arren, azken minutuan partidari ihes egiten laga zioten mondragoetarrek. Bittoren taldea irabaztera zelairatu zen. Iker Oriak 28. minutuan entsegu bat lortu zuen. Handik gutxira gauza bera egin

zuen Josuk eta markagailura 10 eta 0eko igo zuten. Bigarren zatian bizkaitarrek tartea txikitu zuten, baina etxeok beste entsegu bat lortu zuten berehala, tartea berriz ere handituz. Hortik aurrera, eta partida irabazita zutela pentsatuz, defendatza mugatu ziren etxeok eta horixe aprobetxatu zuten bisitariak, markagailari buelta emateko. Azken emaitza 15 eta 17 izan zen, Durangoren alde.

## Pilota finalak

Eskualdeko eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatuko dira asteburu honetan Iturripen. Joan den igandean ziren jokatzeok final erdiak, baina ezin. Hori dela eta, astean zehar jokatuko dituzte. Gauzak horrela, igandean izango dira finalak, 10:30etatik aurrera aurrebenjamin eta haur mailan.

# HIES Ekimenak antolatutako komiki lehiaketa

Arrasateko HIES-Ekimena taldeak komiki lehiaketa antolatu du, "Bota Iezaiozu lazoa" lelopean. Lehiaketa honetan nahi duten guztiek har dezakete parte. Hasiera batean bi maila bereiztu zituzten antolatzaileek: 15 urtetik 18 urtera bitartekoa eta 19 urtetik gorakoena maila. Dena den, adin txikiago-ko gaztetxoek ere parte hartu nahi zutela eta, beste maila bat ere zabaldu behar izan zuten: 12 urtetik 15era bitartekoa, alegia.

## SEXU SEGURUA

Komiki Lehiaketako gaia HIESa edo eta sexu segurua izan daiteke, eta partehartzaile bakoitzak gehienez ere bi lan aurkeztu ahal izango ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. DIN A-4 tamainakoa izan beharko dute gutxie-



Zuk ere "bota izeaiozu lazoa".

nez, eta gehienez DIN A-3 koak. Horretaz gain, bi orritatik laura bitarteko luzera

izan behar dute. Bestalde, inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute lanek, eta edo-

zein teknika erabiltzen dela ere, zuri-beltzean aurkeztu beharko dira. Hori bai; entregatutako lanak orijinala izan beharko du.

19 urtetik gorakoentzat saria 25.000 pta.ko erosketa txartela izango da, eta beste bi mailetako irabazleek 20.000 pta.ko saria eskuratuko dute, hau ere erosketa txarteletan.

Epaimahai batek erabakiko du lan sarituak zeintzuk izango diren, eta epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera daitezke. Honen erabakia apelaezina izango da.

Martxoaren 20an emango dira ezagutzera irabazle- en izenak. Bestalde, jasotako lan guztiak edo hauetatik epaimahaiak aukeratutakoak, Deba Garaiko Eskualdeko udalerrietan erakutsiko dira.

## Arte plastikoen lehiaketa

Gure-Leku tabernak arte plastikoen lehiaketa antolatu du. Gaia, teknika eta materialen erabilera librea izango da, eta horrek aniztasunerako aukerak ugaltzen ditu. Lau lagunek osatuko dute epaimahaia, eta kontuan izango dute lanak aukeratutako horman duen kokaera, pareta horren espazioarekin gorde duen proportzioa eta lokalaren irudiarekin izango duen harremana.

Nahi duten guztiek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, lan guztien artean lehen hautaketa bat egin ondoren, Gure-Leku tabernan erakutsiko dira lanak epaimahaiak azken

hitza eman arte. Irabazleak 90.000 pta.ko saria eskuratuko du, eta akzesitak 35.000 pta.koa.

## IKUSLEA ERE EPAILE

Epaimahaikideak arte eta diseinuan adituak izango dira, eta lehiaketako antolatzaileez gain, ikusleek ere eman ahal izango dute beren botua, Gure-Leku tabernan bertan.

Epaimahaiaren iritzia martxoaren 28an emango da ezagutzera, arratsaldeko 19:30etan, tabernan emango den luntxean. Jasotako boto guztien artean Guggenheim Bilbao museoa ikusteko bi sarrera ere zozkatuko dira.

## Jabiloren aldeko jaialdia

Jabiloren lagunek antolatuta eta Arrasate Musikal Eskolak eta Arrasateko Udalak lagunduta, Jabiloren aldeko kontzertua izango da Amaia antzokian urtarrilaren 23an. Arrasate Musikaleko Tronboi taldeak, Ohiska boskoteak, Arrasate Musikaleko Perkusio Taldeak, Goikobalu abesbatzak eta Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek hartuko dute parte emankizunean. Jaialdia arratsaldeko 20:00etan hasiko da.



Dantzariak ere hor izango dira.

ALEXIS VALDES, ANTZEZLEA

**“Antzerki funtzio bakoitza bakarra da”**

Alexis Valdés duela hamabi bat urte hasi zen umorezko espektakuluak egiten. Telebistan eta zinean ere ibili da lanean kubatar hau. Aurreko domekan Arrasaten eskaini zuen “Me sale de mi cabecita” azken antzezlan, eta jendeak barre dexente egin zuen.

— Zer esan nahi du zuretzat antzezteak?

— Espektakulua ongi ateraz gero eta jendeak ongi pasatzen badu, hori eguneko momentu onena izaten da niretzat. Zoriontasun egoera bat da, deskribaezina dena.

— Nola definituko zenuke antzezteko duzun modua?

— Ongi entseiatutako bat-batekotasunaren gisakoa da, gauzak kontatzearen jolasa. Denborarekin jolasten dut, harridurarekin... Dena den, antzerki funtzio bakoitza bakarra da, aurrean dagoen jendeak eragina du antzezlearengan eta jende hori ere aldiro ezberdina baita.

— Zer errepresentatu nahi izan duzu lan honetan?


— Nitaz hitz egiten dut. Sexuari, erlijioari, tabuei eta egintzat eman diren gauzei buruz uste dudana islatzen dut modu atsegin batean.

— Zein publiko motarentzat dago pentsatuta?

— Gaztelania ezagutzen dutenentzat bereziki. Izan ere, herrialde bakoitzean bizi den eta hizkuntza jakin batean mintzatzen den jendeak modu jakin batean hautematen du errealitatea.

— Telebistan eta zinean ere aritu zara lanean. Zein duzu gustukuen?

— Bakoitzak bere xarma du. Antzerkian berehala sentitzen duzu publikoaren berotasuna, eta lan batek arakasta duenean antzeztu bezain



laster sentitzen duzu publikoaren emozioa. Zinean film bat estreinatu arte ez da horrelakorik sentitzen.

— Nola ikusten du Kuba handik urrun dagoen kubatarrak?

— Kubatik heldu berria naiz, eta noski, inon ez da egoten norbere sorlekuan baino hobeto. Dena den, Kuban antzeztokiak turismoari lotutako guneetan daude, eta jendeak askotan ez du artistaren hizkuntza ulertzen. Horregatik, zaila da komunikatzeko helburua duen espektakulua egitea.

— “Me sale de mi cabecita” izena du zure antzezlanak. Zer dabilkizu bada, buruan?

— Umorea. Umore intelijentea da. Honek bereizten du gizakia animaliarengandik.

— Zein antzekotasun dute taulagaineke Alexisek eta taulagainean ez denak?

— Taulagainean presio handia sentitzen badut ere, seguruago sentitzen dut neure burua. Eguneroko bizitzan, aldiz, kontrola ezin ditzakegun gauza asko daude. Antzezten nagoela, ordea, momentu horretan gertatzen ari denaren gauzatxoaren jabe sentitzen naiz.

**aste gazte****■ DIRU LAGUNTZAK**

• Atzeriko Unibertsitateetan gaztelania irakurleentzako diru laguntzak. Filologia ikasketez gain, beharrezkoa da estatu hartzailearen hizkuntza menperatzea. Epea: urtarilak 29.

**■ LANA**

• Gipuzkoako Foru Aldundiak, 5 suhiltzaile sarjentu plaza betetzeko deialdia egin du. Epea: urtarilak 25.

• Arrasateko Udalean, administrari lan poltsa bat osatu nahi da, eta bi telefonozain eta bake epaile titularra kontratatatu nahi dira. Epea: urtarilak 26.

• Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 46 erizain laguntzaile behar ditu. Epea: urtarilak 28.

• Doneztebeko Udalerako liburutegiko arduradun bat nahi dute. Epea: urtarilak 30.

• Justizia administrazioko ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko lan poltsen irekiera. Epea: otsailak 8.

• Aretxabaletako Udalak liburutegi laguntzaile bat behar du. Epea: EAOan argitaratu zain geratzen da.

**■ LEHIAKETAK**

• “Augustin Zubikarai” narrazio lehiaketa. Euskara batuan edo bizkaieraz, gutxienez 10 orrialde eta gehienez 25 orrialdeko luzeran idatziriko lanak. Epea: urtarilak 27.

• Arrasateko Udalak erata, haratuzteak 1999 hormirudi lehiaketa. Epea: urtarilak 29.

**“Antzerkian berehala sentitzen da publikoaren berotasuna”**

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

## ANDER LANDALUZE (MOTORZALEA)

# “Hogei urterekin motor zahar bat er

**Hirurogeigarren hamarkadaren amaieran mendira oinez igotzeari laga eta motorrean igotzen hasi zen. Trialeko motor bat erosi eta lasterketa batetik bestera ibili zen. Euskal Herriko txapelduna izan zen. Inguruko froga guztiak irabazten zituen. laz bigarren izan zen Arrasateko trial txapelketan, afizionatu mailan. Baina horixe izan zen bere azken lasterketa ofiziala.**

**— Nola hasi zinen trialean?**

— Mendizalea naiz eta hortik abiatu nintzen, baina nire lehenengo kirola txirringularitza izan zen. Musakolako baserrian bizi nintzen eta bizikletan ibiltzen nintzen batetik bestera. Hemezortzi urterekin lasterketan aritu nahi nuen, baina orduan ez zen jende asko ibiltzen bizikletan eta ez nekien gauza handirik kirol horren inguruan. Nire lagunak, gainera, mendian

ibiltzen ziren. Horregatik bizikleta utzi eta mendian hasi nintzen. Zeharkaldiak, Pirinioak, eskalada... denetik egin nuen. Lagun batekin eskiatzen ere hasi ginen.

**— Nolatan igaro zinen menditik trialera?**

— Nirekin eskalatzen zuen lagunak soldadutzara joan behar izan zuen. Ordurako motorren inguruko aldizkariak irakurtzen hasia nintzen. Hogei urterekin motor zahar bat erosi eta mendirako prestatu nuen: eskulekuak, atzeko platoa...

**— Noiz hasi zinen lehizatzen?**

— 1973an 2,5eko Bultako Alpina bat erosi nuen. Motor hura “todoterrenoa” zen. Urtebetera Bultakoa saldu eta trialekoa erosi nuen. 1974an lizentzia atera nuen. Lehenengo lasterketa Peña Angulon, Bizkaian, egin nuen, baina amildegi bate-

tik behera jausi zitzaidan motorra. Bigarren trialean, Barakaldon, azkena izan nintzen eta hirugarrenean, berriz, laugarren. 75ean soldadutzara joan nintzen eta bitartean Donostiara etorri eta nire lehenengo triala irabazi nuen scratch eran, hau da, sailkapen orokorrean, junior mailan.

**— Eta profesioaletan zer?**

— 1977an eta 78an, kontratua sinatu nuen Bultako etxea-

rekin. Euskal Herriko txapeldun izan nintzen 1978an. Orduan “Vasco-Navarro” txapelketa zen. 43 lasterketan parte hartu eta 33 irabazi nituen. 1979an berriz irabazi nuen, baina Montesarekin. 30 lasterketatik gora egin nituen eta 20 bat irabazi. 80ko hamarkadan, seniorretan, lagatzen hasi nintzen eta tarteka bestelakoak egiten nituen: eskia, wind surfa, uretako motorra...

**— Seniorretan lortu zuen titulurik?**

— Gipuzkoako txapeldua izan nintzen 1989an eta 90ean. Garai hartan izugarri aldatu zen triala, teknika gehiago eskatzen zuen. Guztira 300 bat trialetan parte hartuko nuen. Herri mordo bat ezagutu ditut kirol honi esker.

**— Zenbat garaikur dituzu?**

— Hasieran amak ageri-



**Guztira 300 bat trial lasterketan parte hartuko nuen. Herri mordo bat ezagutu dut kirol honi esker.**

# si eta mendirako prestatu nuen”

an ipintzen zituen. Orain, berriz, ez dut uste bat bera ere egongo denik bistan. Zakutan bildu zituen kopa guztiak eta ganbaran gorde. Trialetan saririk ez da ematen. Dirua Tarresek baino ez du egin.

**— Izan duzu aurkaririk?**

— Bizkaian Roque Tabares bilbotarra. Araban, Francisco Jabier Aldekoa eta Nafarroan, Felix Irigalba.

**— Iaz ere aritu zinen motorrekin?**

— Aldizkari batean Katalunian motor zaharrekin aritzen zirela irakurri nuen. Dena pres-

tatu nuen hara joateko, baina ezin izan nintzen joan. Euskal Herriko txapelketan hartu nuen parte, afizionatu mailan. Afizionatuetan pasu samurragoak egiten dira, baina nire motorra zaharra zen eta beste lehiakideek motor berriak zituzten. Iaz, hala ere, bigarren sailkatzea lortu nuen, nahiz eta bi lasterketatan parte hartu ez.

**— Zergatik erabaki duzu trialala lagatzea?**

— Motor zaharra lagatzea erabaki nuen: sekulako pisua zuen, oso freno txarrak zituen, suspentsioak muelledunak zituen... Motor berri batekin

aritzea pentsatu nuen. Beteranoen lizentzia nuen, baina motor berriarekin ez zidaten afizionatuetan aritzea lagatzen. Motor berria erosi nuen, baina entrenatzen mina hartu eta lepauztaia apurtu nuen. Bel-durra hartu nion motorrari. Ez nuen ondo menperatzen...

**— Baina Arrasateko lasterketan hartu zenuen parte?**

— Bai, baina motor zaharrekin. Aurten ere bai, seguraski.


**— Ze ibilbide duzu atseginen?**

— Hemendik Aizkorrira

eta buelta. Igande askotan egin izan dut, baina lurra siku zegoela. Gelditu barik, gainera. Urbiako fondan tragoren bat edo beste hartu izan dut, baina jeneralean gelditu barik eta bide txarrenetik ibili izan naiz.

**— Zer behar du trialak?**

— Mailak zabaltea. Jende gehiagok hartuko luke parte. Guneak oso zailak dira. Neu beteranoa naiz, baina gune horiek zailak direla uste dut. Hori dela eta, aukera gehiago jartzea eskatuko nuke. Nire maila afizionatuen guneetan aritzekoa da, baina beteranoetan aritu beharra daukat. ■



**weru®**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
 BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
 Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
 ARRASATE



*Salterain*

**PVC-zko ate eta  
 leihoez gain:  
 moketak,  
 zoru arinak,  
 kortxoa,  
 Louverdrape  
 kortinak,  
 Kortinoba, testila...**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergaran. Mazterreka auzoan. Tel.: 943 76 17 49. Gaueko 21:00etatik aurrera.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

### 3. Errentan emateko

• Emakume alarguna ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu, Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreeratik hurbil dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

• Pertsona bakararentzako teilatupea alokagai. Tel.: 943 79 59 60.

### 4. Errentan hartzeko

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berritzeko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

• Etxebizitza alokatu edo osatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 64 04.

### 5. Etxeak osatzeko

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

• Bi mutilek etxebizitza merke bat alokatuko genuke. Osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

• Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Arrasateko erdialdean. Tel.: 94 636 29 69.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Lonja salgai Uriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garajea salgai Kurtzetxiki kalean, 36an (San Andres auzoan). Tel.: 943 79 41 68 (Andoni).

### 9. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

• Zerkaostetan kokatua dagoen lurrindegia salgai. Tel.: 943 79 28 85.

### 14. Errentan emateko

• Garajea alokagai. Musakola aldean. Tel.: 943 79 37 38 (eguerdie-tan).

• Eratuta dagoen 20 m<sup>2</sup>ko bulego komertziala garaje itxi baten truke aldatuko nuke. Tel.: 943 77 16 00.

• Azkar taberna alokatzen da. Udalpe kalea, 6 - behea. Interesatuak tabernatik bertatik pasa edo 943 79 70 43 telefonora deitu.

• Lokalak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldea erabiltzeko eskubidearekin). Tel.: 943 79 05 26.

### 15. Errentan hartzeko

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

### 14. Errentan emateko

• 75 m<sup>2</sup>ko lonja bat alokagai Anbo-to kalean. Tel.: 943 79 98 07.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (M<sup>a</sup> Carmen).

• Eperientzia handiko emakumea prest dago arropa konponketak, sukaldeko lanak edo plantxa egiteko, orduka. Tel.: 943 79 59 43.

• Psikologoa laguntza eskola emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Italianer lizentziatua italiaroko eskolak eta itzulpenak egiteko gertu. Tel.: 943 76 65 24.

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

### 18. Eskaerak

• Sukaldari laguntzailea behar da taberna batean, asteburu gauetan lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Utzi telefonoa eta izena erantzungailuan eta deituko dizugu. Tel.: 943 77 11 92.

• Andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tel.: 943 77 04 60 (Margari).

• Ingelesetik gaztelaniarako itzulpen bat egiteko, bertako baten laguntza behar da. Tel.: 609 44 73 13 (Juanjo).

• Pertsona bat behar da asteburuetan pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 943 79 98 26 (20:00etatik 22:00etara deitu).

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 22 92.

• Emakume bat behar da tabernako sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dugu. Deitu arratsaldez. Tel.: 943 79 73 82.

• MCC ezagutzen duen komertziala behar da. Ordutegi librea. Produktu paregabea frogatzeko. Tel.: 943 19 22 65.

• Asteburuetarako zerbitzari lanak egiteko neska euskaldun bat behar dugu. Tel.: 945 44 50 86.

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

- Margo eta marrazki artistikoko eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 19 23 (eguerdian edo gauean deitu).
- Enpresa Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoentzat. Tel.: 943 79 06 39.

**21. Eskaerak**

- Akademiak irakaslea behar du arratsaldezkol emateko, (EH, BBB, UBI, LH mailak). Tel.: 943 77 11 06.
- Ingeleseko eskola partikularrak hartuko nituzke. DBHko 3. mailan nabil. Tel.: 943 79 68 84.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

- Peugeot 106, 1.100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000

pta. (negoziatzekoak). Tel.: 607 86 16 98

- Yamaha salgai, 93koa. Egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 943 79 78 36
- Fiat 1 turbo salgai. 118 cv, 91koa, 90.000km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50 (Jesus).
- Peugeot 306 XSI salgai. 2000cc<sup>3</sup> 2 ate, aluminiozko llantak, 70.000 km. Merke. Tel.: 943 79 78 32.

• Fiat 1 Turbo salgai. 118 cv. 1991 urtekoa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50.

• Renault 11 GTX salgai. Tel.: 943 79 69 13.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

- Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objektiboa. Starbiltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsaldezkol edo gauez.
- Bebe-Comfort markako ume kotxea

salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat saltzen dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

• Super Nintendo konsola salgai. Egoera onean dago. Hiru joko eta agintea. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 80 99.

• Gitarra elektrikoa salgai, 30w. ko amplifikagailu batekin. 50.000 pta. Dei egin asteburuetan 943 73 40 08 telefonora.

• Gela bat eta sofa ohe bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 41 26.

**27. Erosi**

• Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak eta pedigridunak. Tel.: 943 85 32 44 / 608 770 651

**29. Eman**

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispeko aparkalekura edo

Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

• Egoera onean dagoen eta 90 cm. ko luzera duen ohea (koltsoirik gabe) eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 57 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu).

• Koltsoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugu eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdian deitu.

**31. Galdu**

• Norbaitek Gabonzahar gauean nire berokia hartu zuen Kajoi tabernan. Berokia urdin iluna eta txanoduna zen. Nik beste beroki bat hartu nuen, beltza eta botoiduna. Tel.: 943 77 16 29 (Leire).

**32. Aurkitu**

• Santamas egunean Portaloi inguruan saltokia ipini zuen saltzaile bati generadorea galdu edo norbaitek hartu egin zion. Honi buruz berriren bat duenak dei egin dezala mesedez udaltzaingora. Tel.: 943 79 14 39.



Datorren astean  
**adi egon!**

GIDA 99 - Leintz Bailarako  
Gida Komertziala  
zure postontzian aurkituko duzu.



Ez baduzu jasotzen,  
dei egin 943 77 08 15 telefonora  
edo zuzenean ARKOra etorri.  
Otalora Lizentziatua, 31 - ARRASATE

Bolsa  
Garantizado  
Aurrezkia



Emakumea piscis da. Gizona, tauro.  
Gizonak bere aurrezkiaren errentagarritasuna bilatzen du.  
Emakumeak, segurtasuna.

Euskadiko Kutxaren Bolsa Garantizado Aurrezkia.  
Bientzat onena.

### **Ezaugarriak:**

**Epea:** 2 urte eta egun bat

**Mugaegunerako bermea:** sartutako zenbateko oso-osoan itzultzea

**Etekin osagarria:** Burtsaren IBEX indizeari lotuta

**Fiskalitatea:** %18ko kontuko atxikipena.

Etekinen %70ek bakarrik ordaintzen dute zerga

**Izena emateko epea: 1999ko urtarrilaren 11tik 27ra**




**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena



# Euskarak Deba Garaian izan duen bilakaera aztertuko du mahai inguruak

Datorren asteazkenean, hilak 27, egingo den mahai inguruak gaurkotasun handia duen gai bat jorratuko du: euskarak Deba Garaian izan duen bilakaera.



Laixan



Dagoeneko kalean dira Euskal Estatistika Erakundeak euskararen ezagutzari buruz eman dituen azken datuak. Horien arabera, lehenengo aldiz aspaldiko partez, gehiago dira EAEn euskara dakitenak ez dakitenak baino. Baina zer gertatzen da Deba Garaian eta zer berau osatzen duten herrietan? Horixe izango da gonbidatuek aztertuko duten puntu bat.

Azken urteotan eman den hazkundeak ondorioak izan

litzake herriz herri aztertzeke orduan.

Esate baterako, administrazioan eta irakaskuntzan eus-

kara eskakizunak eguneratzeke orduan.

Dena den, euskararen eza-gutza gauza bat da, baina ezin ahaztu erabilera. Zenbat euskara egiten da gure artean? Horra hor beste mintzagai bat.

Horretaz guztiaz hitz egiteko, Rosa Mondragonek lau euskara elkarteren ordezkariak izango ditu mahaiaren bueltan: Bergarako Jardun, Oñatiko Laixan, Aretxabaletako Loramendi eta Arrasateko AED.

Denak ordezkatuta daude *Debagune* elkarteetan. Honek Deba Garaiko zazpi euskara elkarte biltzen ditu, hilean behin edo, elkartzen direnak.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 23	ASTELEHENA, 25	ASTEARTEA, 26	ASTEAZKENA, 27	OSTEGUNA, 28	OSTIRALA, 29
<b>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:</b> Munduari bueltaka, Aurrez-aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak</b>  <b>21:30 Mondrasport</b> Itxaro Zubillaga aretxabaletarrak aurkezturik	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b>  <b>13:35 Mondrasport</b> (errepika).  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak</b>  <b>21:30 Musiklasik,</b> Iñaxio Olaizolak eta Marta Izagirrek aurkezturiko saioa.	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b>  <b>13:35 Musiklasik</b>  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak</b>  <b>21:00 Mahaingurua,</b> Rosa Mondragonek aurkezturik. Jorratuko den gaia euskararen egoera Deba Garaian izango da eta gonbidatuak Laixan, Jardun, Loramendi eta AED izango dira.	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b>  <b>13:35 Mahaingurua</b> (errepika).  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak</b>  <b>21:30 Ekilan,</b> Alberto Gorriteberek aurkezturiko enpresen inguruko saioa. Aste honetan Hezibideko ikastolen ekimen berriez arituko dira.	<b>13:30 Albiste aurrerapena</b>  <b>13:35 Ekilan</b> (errepika).  <b>20:00/20:30/21:00 Berriak</b>  <b>21:30 Astebete</b> albistegian aste-ko notizia garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osak aurkeztuta.  <b>22:00 Soinuz Blai</b> musika programa Edu Abasolok aurkeztuta.



Marta Izagirre.



**L** 954. urtekoa da argazki hau. Zuhaitz Eguna ospatzen ari ziren eta herriko udal txistulariek eguna alaitu zuten txistu doinu goxoekin.

Ekitaldi ofizial guztietan aritzen omen zen hirukote hau

txistua jotzen, baita igande guztietan ere.

Eskuma aldean danborra jotzen dagoena, Felipe Vitoria da, erdiko txistularia, Felix Jauregi-Arraburu Leibar eta ezkerrekoa, Juan Bautista Mendieta. Orain 25-30 urte inguru desagertu zen txistula-

ri talde hau.

Argazkia, Santa Barbarako talaian ateratakoa da, martxoaren 25ean. Haize bolada gogor batek, parkearen erdian zegoen zuhaitza bota omen zuen eta egun horretan, orain dagoen pinua sartu omen zuten herritarrek.

-----  
**Argazkia:**

*Arrasateko Udala*

**Berriemalea:**

*Arrasateko Udala, Amaia Jauregi-Arraburu eta Jose Mari Balanzategi.*

**UGARTE**

**Industria  
hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-79 3412

**BITTORI  
ERRETEGIA**

**Eguneko menua • Kartako menua**

**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

**Focus Tour autoan, sekula ikusi gabekoa ikusiko duzu  
...eta ez da eredu bat**



Benetan berria den zerbait ikusi nahi baduzu, hurbil zaitez Focus Tour carabanara. Azken aldiko autorik iraultzaileena aurkituko duzu. Eta ez da eredu bat. Igo eta miresteko aukera izango duzu, eta baita gidatzekoa ere. Munduko Focus handiena ikusi nahi baduzu, ez ezazu Focus Tour ezagutzeko aukera gal. Zatoz sekula ikusi gabekoa ikustera. Ez diezazula beste batek konta.

**focus**



**Deba Garaiko  
kontzesionario  
ofiziala**

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 07 44

# Zerbait handia jaio berri da Arrasaten



Orain arte Irunen zenuen **TodoMueble**.

Orain, gainera, **TodoMueble Kabia** jaio berri da Arrasaten.

Altzari denda handi bat **TodoMuebleren** ahalmenarekin eta **Kabiak** beti eskaintzen dizun kalitatezko zerbitzu eta arretarekin.

Arrasaten **TodoMueble Kabia**. Benetan handia.



**TODOMUEBLE KABIA:** Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel: 943 79 27 70 • ARRASATE  
**TODOMUEBLE:** Barrio Anaka (Porcelanas Bidasoa bidegurutzea) • Tel: 943 61 35 35 • IRUN  
09:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara • Zapatuak barne